

Gure bertsolariak

(Bertsolari-sariketa Bilbo'n,
1958-VIII-24'an)

Bertsu-zale amorratuak gara euskaldunok. Inok au ukatu ba'legi, guzur biribilla liño-ke. Zoaz, bestela, edozein erri-jaietara ta ikusi: bertsolari izpirik an ba'da, kaxkarran izan, arek agoa zabaldu-ala, or erritar guztiak, milla nai bost milla bardin, begi-erne, belarri-zoli, ago-zabal, ezpan-irritsu. Bai, len, orain ta gero, nai-noz, inundiko garai-penak lortu ta sekulako txalo-zartadak jarritxi izan dabez bertsolari deritxogun gizon arrigarriok.

Eta zer ete dabe gizon orreik, entzule mordo ain galanta orrela zorakortu ta lilluratzeko? Ba'leiteke ez batzuk ez bestek, ez koplariak ez erritar entzuleak, orren zio ta barri zeantik ez izatea. Gai onetan oso jakintsua dogun Lekuona'tar Manuel apaiz argiak ona zer diñon: «Txoriak ba-daki kantari: baiñan ez daki nola kantatzen duan. Zuk ere ba-dakizu bertsuak egiten: zuk ere ba-dakizu koplak botatzen. Baiñan koplara miñña, bertsu oien guna ta ezta zertan dagon, ba al dakizu? —Neronek al dakidan diozu? Olerki baserritarren ezti ori zertan dagon bai al dakidan? Obe bai neronek ere laneki... Egunoro dagiot Jaungoikoari eskerrik asko, baserritar egin inidualako: eskerrik asko bai, beste zenbaiti ez bezela, neri, koplara baten jario garratxa murtxaizeko eman didan ao-goziaren alde. Baiñan neronek ere —ibilli asoko egin ondoren, neronek ere— ez al dakit noski ezertxo garbirik gai txoragarri onetaz».

Egiaz, zoragarria da izan be bertsolariak bai edo biren edo askoren arteko saio ta jardun gozoa. Areik bai dabela irudimen bizia, etorri ugaria! Areik bai ahapaldi zorrotz eta irribarre eutsi-ezinez beteak! Areik bai zar-sundaz gainezkako esatera jori ta zirikalariak! Areik bai ba-dabe bardiñik bageko bizitasun eta urdari esan-gaitza! Eta ertz hizi jori guztion batasunak damotsa, nunbait, baserritarra deritxogun olerkiari onek berezko dauan gatz eta ezta.

Gure artean beti izan dira bertsolariak, bai ta izango be. Gaurkoz ba'leiteke lenago besteko zaletasunik ez izatea; baiña bada or-emen berezko bertsu-senak joritura

ekitaldi politikak egin oi dabezan, plaza-gizon ertulariak. Eta erkietara jo ezker, orretan txapeldun dan Gipuzkoa'n ez-ezen, emen Bizkai aldean be ba-doguz, eta ez gitxi. Joan dan agustuaren 24'an Bilbo'ko Areanlean ausaz egona ba'zara, ez daustazu ezetzik esango.

Izan be, bizkaitar bertsolarien len-txapelketa zan bertan ospatzen genduana, ta jakina, bertan ziran Bizkai aldeko koplari-rik bikaiñenak. Gauza ikusgarria, bene-benetan! Zazpi milla lagunetik gora batu gintzazan Bilbo'ko biotzean, eta bertsolariak —zazpiraiño ziran guztiz— euren jardun bizi jori zirikalaria asi ta ekitean, luzaro be luzaro barne-gartsuz txalotu genduzan.

Ordu bi ta erdian saio aintzagarri orretan ekin ondoren, sari galantak jaso ebezan koplari hikaiñok. Lenengo saria —ondo merrezia gero— Balentin Enbeitak jaso eban Nazario Oleaga, Euskaltzaindi'ko Zadorlariaren eskuetatik: Bizkai'ko Aldundiaren Edontzi ederra ta 3.000 laurleko. Jentea birtartean txalo-joka, Bigarrena, Larrauri'ko seme Juan Ormaetxe'k. Bizkai-Aurrez-Kutxak emoniko edontzia ta 2.000 laurleko. Irugarrena, Mañaritar Joxe Alberdi'k. Udaletxe-Aurrez-Kutxaren edontzia ta 750 laurleko. Eta beste lau sari 500 laurleko bakoitza, Asensi Bidaurrazaga, Getxotarrari; Eusebio Zubiaga, Urduliztarrari, ta Kastrexana ta Zarraga, Luxu ta Berango'koai. Zorionak guztioi!

Asiera ona, benetan. Urrengoan ugari ta edertoago. Eta ez Bilbo'n bakarrik; datorren udabarriruntz asita, Bizkai'ko erri askotan, erri-jaiak dirala-ta batez be, txapelketa orreik ospatzeko asmua dau Euskaltzaindiak. Lenengo erriz erri ta atenez Bilbo'n, Euskal-Astea dala-ta. Tatu orretan, bertsu-griña ta galea geitu ta biztu egingo. Eta au, danok dakigunez, gure ele zar eskerari eusteko bide artez eta egokia dogu.

—Oarra.—Gure KARMEL'go urrengo zenbukietan be ekingo auzsagu gai oneri, bizkaitar bertsolariok bizkortu ta eskolatu daitazan.